

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Igandea, 2012ko otsailaren 19a. IX. urtea. 2.364. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



500 bat ume atera dira haur danborradan. Eguraldi onak lagunduta jende asko izan da ekitaldia ikusten, eta jendetza bildu da danborradaren bueltan. LURKIZU

## Danborren burrunba eta gero, mozorroak

Dantzari txikien kalejira eta haur zein helduen danborradak izaten dira Zaldunita Bezperan; jendetza bildu da eguneko ekitaldi nagusiak ikusteko

Gaur hasiko dira Tolosako inauterien egunik eroenak; mozorroak soinean hartu eta asteartea arte konpartsek, karrozek, eta txantxoek hartuko dituzte kaleak **05**

Ondo pasa  
inauterietan!!

24 M-ko DUO<sup>+</sup>  
+ Finkoetarako detiak

Alta eta instalazioa DDAn  
Wi-Fi N kable-moderna DDAn  
TBI Digitaliko deskodetzailea 0ANNE

28'1  
€/hil

Leheneko inauterietan  
sartzen

Eta gainera,

Leheneko inauterietan  
hau opartuko



logikaline  
943 31 86 11  
San Francisco, 39 Tolosa

eruskaltetel  
Bazterreko ofiziala



## Aintzane Leunda ◊ Inauterizalea

Azken bi hilabeteetako asteburuak beteta izan ditu Aintzane Leundak: egun batean, aisialdi taldekoekin Astelenitako konpartsa entseguetan eta, bestean, karroza prestatzen.

# «Beti joaten naiz Dianara, horretan ez dago dudarik»

Imanol Garcia

Aintzane Leunda (Tolosa, 1980) urte asko daramatza aisialdi munduan, horietatik azken hirurak Kirikiñon. Astelenita, beraz, bete izaten du, eta baita Zalduñita eta Asteartita ere, karroza eta guzti ateratzen baita.

**Nola bizitzen dituzu inauterien aurreko egunak?**

Inauteriak iristeko zain eta azken gauzak prestatzen. Urduritasun pixka bat ere izaten dugu.

**Modu askotara bizitzen dituzu: karrozarekin eta Kirikiñon taldearekin. Lanpetuta, beraz.**

Gabonak iristen dira eta badakizu zer lan daukazu inauterietarako. Asteburuak horretarako hartuta: larunbatetan, konpartsa eta igandetan, karroza prestatzera. Pare bat hilabete horietan, batez ere, asteburuetan, prestatzeta lanetan aritzen naiz, baina baita astegunetan ere.

**Aurten Kirikiñok 25 urte betetzen ditu. Nola doaz prestatzetak?**

Zerbait berezia egin nahi da begi-

rale ohiak gonbidatuz. Astelenita bereziagoa izango da. Batzorde bat arduratzen da gauzak prestatzeaz. Dantza bat egiten da eta hori erakusten da. Jantzia begirale guztien artean erabakitzen da eta gero batzordeak egiten du lan gauza guztiak aurrera ateratzeko. Gero begiraleek dantza erakusten diegu guztiak.

**Ikuskizuna egiteak lan asko suposatzen du?**

Lan gehiena duena da: erabaki musika eta dantza, eta gero hori erakustea. Hirurehundik gorako lagun taldea gara eta ez da erraza hainbeste jenderentzako zerbait osatu eta aurrera ateratzea.

**Aisialdi taldeko haurrak modu berezi batean ari dira prestatzetak bizitzeko?**

Beraientzako bereziago da Astelenita bera, urteurrena baino. Gogoz daude; larunbatetan elkartu gara entseguak egiteko, eta hasieran pixka bat pisua egiten da, baina gero dinamikan sartzen zara, eta jende asko elkartu gara entseguetan.

## ↓ Tragoxka batean

■ **Egunik onena.** Uff... Ez dakit. Bat esatekotan, Ostegun Gizona.

■ **Inauterietako une bat.** Diana.

■ **Gustuko mozorroa.** Pailazoarena.

■ **Abesti bat.** Ostegun Gizen.

■ **Eguna ala gaua.** Dudarik gabe, eguna.

**Zaldunitan eta Asteartitan karroza batean ateratzen zara. Nolako muntaiak egiten duzue?**

Urtearen arabera. Gaia erabakitzen dugu iraila inguruan eta Gabonak iristen direnean hasten gara martxan. Saiatzen gara beti zerbait erraza egiten, bestela inauterietarako ez garelako iritsiko ematen du, baina azkenean plan-teatzen duzuna aurrera ateratzen da.

**Zenbat lagun ateratzen zarete?**

Aurten 30 bat inguru. Hasieran kuadrila bat zen eta gero jende gehiago elkartzen joan gara.



HITZA

Adin guztietakoak gaude karrozan.

**Egun horiek nola antolatzen dituzu?**

Beti joaten naiz Dianara, horretan ez dago dudarik. Gero gosaldut, karrozako prestatzeta guztiak egin, eta eguna karrozakoekin pasatzen dut. Afaldu, eta beranduegi izan gabe ohera, hurrengo egunean aisialdi taldearekin ateratzen garelako. Asteartitan azkeneko indarrak uzten ditut. Saiatzen naiz egun horretan parranda pixka bat gehiago egiten. Azkenean, inauteriak hasten direnetik bukatu arte, ia arnasa hartzeko denborarik gabe ibiltzen naiz urtero.

**Zer dira zuretzako inauteriak?**

Niretzako *kit kat* bat dira neguan. Jende guztia dago festetan sartuta; gero iristen da asteazkena eta errealitatera itzultzea izaten da. Festa oso bereziak dira, jende guztia dago horretara. Egunerokotasuna alde batera uzten duzu, eta festan murgiltzen zara, horretarako zaude, ondo pasatzeko egunak.

**Zer esango zenioke Tolosako inauteriak ezagutzen ez duen bati? Nola gonbidatuko zenuke?**

Mozorrotuta etortzeko esango nioke, igandetik asteartera, noski, edozein egunetan. Uzteko gauzak alde batera, eta festetan sartzeko, ez etortzeko eguneroko eskemarekin.



# Aisialdi taldeen txanda

Astelenita guztietan bezala, Tolosako eta Ibarako sei aisialdi taldeak dantza saioa eskainiko dute, bihar

## Iñigo Terradillos

Urteko egunik berezietakoa izan ohi da biharkoa aisialdi taldeko kideentzat. Euren ikuskizuna eskaintzen dute kaleetan, elkarrekin bazkaldu, eta zezen festara joaten dira, eta arratsaldean emanaldiarekin jarraitzen dute. Egun bete, gaztetxoek nahiz helduek primeran pasatzen dutena.

Aisialdi taldeetako begiraleek Astelenitako gaia erabakitzen dute lehendabizi, eta ondoren gai horrekin ondo doazen musika aukeratu eta dantza diseinatzen dute. Ondoren, hori guztia praktikan jartzeko txanda izaten da, taldeetako kide guztiak dantzan jarritz.

Urte berriarekin batera-edo hasi ohi dira entseguekin. Hauek, normalean, larunbatetan egiten dituzte taldeetako egoitzan edota kiroldegi edo plazetan. Kide ugari osatzen dituzte taldeak, eta adinez, berriz, bost urtetik gorako haurretatik hasi eta gurasoe-

tara bitartekoak izan ohi dira. Beraz, pausoz pauso, pixkanaka pixkanaka, ikasten dituzte dantzak, partaide guztien dantzarako trebezia ez baita maila berekoa.

Behin dantza hasieratik bukararaino ederki ikasita dagoenean, Astelenita goizeko entsegu orokorra baino ez da geratzen. Hori egin, eta guztiak prest dira San Frantziskoko eskenatokian euren lana estreinatzeko. Jendetza izango dute bertan zain.

11:00ak ingururako dantzan izango dira aisialdi taldeetako kideak, ibilbidea bi taldetan banatuta egingo dutelarik. Hiru talde San Frantzisko kalearen hasieratik, hau da, tren geltokira doan bideturtearen paretik abiatuko dira, eta beste hirurak, berriz, Rondilla kalearen bukaeratik. Ikuskizuna bazkaltzera joan bitarte eskainiko dute, eta baita zezen festaren ostean ere.

### Kirikiñoren 25 urteak

Era guztietako dantzak eta mozo-roak ikusi ahaliko dira bihar. Aisialdi taldeetan bada aurten nabarmenezko bat, Kirikiño, hain zuzen. Euren 25. urteurrena dela eta, azken urteetan erabili dituzten mozo-roak gogoratzeko aukera izango da, *Willi Fog, Kirikiño munduari bira* ikuskizunean.



Alicia, bitxikerien lurraldean irudikatu zuten iaz, Kirikiño taldekoek. R. CALVO



Kazkabarra taldekoak Charles Chaplinez irten ziren, pasa den urtean. R. CALVO

## ↓ Aisialdi taldeak

### SAN BERNARDO

■ **Gaia.** Mexikarrez jantzita ir-tengo dira dantzara. Hainbat pertsonaia irudikatuko dituzte: gizonezko zein emakumezko mexikarrak, mariachiak eta kaktusak.

- **Kopurua.** 100 lagunetik gora.
- **Adina.** 6-7 urtetik gorakoak.

### TXIRIBITU

■ **Gaia.** Jackson 5. Musika taldea osatzen zuten bost anaien mozo-roturik dantzatzuko dute.

- **Kopurua.** 84 lagun.
- **Adina.** 10 urtetik gora, gurasoak eta begiraleak barne.

### TTENTTEK

■ **Gaia.** Cro Magnon gizon-ema-kumeez aterako dira, lau taldetan banatuta: haurrak Cro Magnon txikiz, helduagoak Cro Magnon gizon eta emakumeez, eta helduenek Cro Magnon jakintsu edo aztiz dantzatzuko dute.

- **Kopurua.** 140 lagun.
- **Adina.** 5 urtetik gora, gurasoak eta begiraleak barne.

### KIRIKIÑO

■ **Gaia.** Willi Fog kirikiñoko munduari bira. Aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta, Kirikiño munduari bira emango diote, eta azken urteetako inauterietan jantzi dituzten hainbat mozo-ro ikusi ahaliko dira.

- **Kopurua.** 280 lagun.
- **Adina.** 10 urtetik gorako kideak.

### KAZKABARRA

■ **Gaia.** Irrien Lagunak: Mari Motx, Pirritx eta Porrotx. Bi dan-

tza desberdin egingo dituzte, txikiek batetik, eta helduek bestetik, eta azkenean, guztiek batera elkarrekin dantzatzuko dute.

- **Kopurua.** 430 lagun.
- **Adina.** 8 urtetik gorakoak.

### ATSEDENA

■ **Gaia.** Lacasitoz eta Congitoz mozo-rotuta dantzatzuko dute.

■ **Kopurua.** Aurten, inoiz baino lagun gehiagok osatuko du Atsedena ikuskizuna, 140 lagun inguruk, hain zuzen.


- **Adina.** 8 urtetik aurrerako kideak.



Ttenttek taldekoak, pasa den urtean, panpinez jantzita. ASIERIMAZ



Txiribitu taldekoak Tetris jolaseko piezez mozo-rotu ziren iaz. R. CALVO



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Erraldoi eta buruhandiak kalez kale ibili ziren Zaldunita bezperako goiza girotuz, eta baita Kabi Alai elkarteko txaranga ere. I. URKIZU

# Dantzari gazteen inauteria

Eskualdeko 300 dantzari txiki inguru kalejiran ibili dira Tolosako Alde Zaharrean, Zaldunita Bezperan

## Itzea Urkizu

Tolosako inauterietako egun handienaren bezperak ez zuen inaute girorik falta izan, eta Zaldunita Bezperan ere, txaranga, dantzari nahiz erraldoiek bete zituzten, atzo goizean, Tolosako kaleak.

Udaberri dantza taldeak inauterietako egitarauaren barruan antolatutako dantzari txikia 11:00etan abiatu zen Trianguloa plazatik, eta dantza talde tolosarreko ikasleez gain, eskualdeko gaimontzeko herrietako haur eta gaztetxoak ere eurekin aritu ziren, Altsasuko eta Lantzeko doi-

nuen erritmora oinak astinduz; gutzira, 300 neska mutilek parte hartu zuten kalejiran, txantxoz jantzita ia denak. Jesuitinen patioan hamaiketako eginez amaitu zuten goiza.

Erraldoi eta buruhandiek ere, ez zuten Zaldunita bezperan hutsik egin, eta dultzaina eta tambor doinuz lagunduta, Alde Zaharrean barrera pasa zuten goiza.

Dantzari txikiekin zihoazen txistulari nahiz trikitilari, eta dultzaineroekin batera, Kabi Alai-eko txarangaren inaute kantuak ere entzungai izan ziren, 12:00ak aldean kalejiran irten baitziren elkartetik.



300 neska-mutilek parte hartu zuten Udaberriren inauterietako dantzari txikian. I. URKIZU

**TOLOSALDEKO hitza**  
ETA LEITZALDEKO  
bertako egunkaria

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)  
[leitzaldea.hitza.info](http://leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidali zure datuak:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea • 20400 Tolosa

egin zaitez harpidedun!

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaloteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•PK:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, batrik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA HERRIA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batiara pasatuko direla, enpresak dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago kuzko, zuzentzeko, ezabatatzeko eta kontu egiteko esku-bidiekin erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HITZA HERRIA HEDABIDEAK S.M. - Araba etorbidea 5 behea, 20400 Tolosa, edo harpiketza@hitza.info

**Tolosan etxe adosatua salgai:**  
eguzkitsua, lau gela, bi bainugela, komuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako garajea, txokoa, jardina eta trastelekua.

**Interesatuak, deitu**  
**678 267657**  
telefono zenbakia.



500 hurrek parte hartu zuten Aiz Orratz-Veletaren 50. danborradan. I. URKIZU



Txu-txu trenea goizean ere itzulika ibili zen. I. URKIZU



Kosakoz jantzita danborrada hasieran joan ziren neskak. I. URKIZU



Carlos Muñoa zuzendaria goian; behean emakume danbor joleak. I. GARCIA

# Danbor hotsak inauteriari deika

500 haur eta gazte tolosarrek parte hartu dute Aiz Orratz elkarteak antolatu ohi duen haur danborradan

Helduen danborrada 19:00etan hasi da, eta jendetza bildu da ikustera

## Itzea Urkizu

Danbor hotsek bete zuten atzo arratsaldea, inauteriei dei eginez, haur eta helduen danborradekin.

Jendetza bildu zen bai irteeran eta baita Trianguloan ere, haureta gaztetxo tolosarren danbor festaren aitzakian. Eguraldia lagun zutela, 17:00etan geltokitik irten zen Aiz Orratz-Veleta elkarteak aurten 50. aldiz antolatu duen haur danborrada. 500 neska-mutil inguruk parte hartu zuten danbor festan, bakoitzak bere ikastetxeko jantzia soinean zuela.

1962an Aiz Orratz-Veleta elkarte tolosarra danborrada antolatzen hasi zenean, ordea, kosako, sukaldari eta arrantzale jantziak izaten ziren nagusi, eta aurtengo 50. urterrenaren harira, zenbait hurrek jantzi haiek gogora ekarri zituzten, txu-txu trenean joan baitziren.

## Iluntzean helduak


Danbor hotsek, ordea, gauera birtarte jarraitu zuten atzo, helduen danborrada 19:00etan hasi baitzen, Trianguloa plazan.

Urteroko moduan, kosakoak dantzan aritu ziren txarangaren erritmora, eta hainbat tolosar atzetik izan zituzten danborradaren ibilbidean.

Hainbat hilabetez Zaldunita eguna prestatzen aritu ondoren, Zaldunita bezpera goiz erretiratzeke eguna izaten da tolosarren-tzat, baina ez zuen horrek, danborrada ikustera jendea hurbiltzea oztopatu.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

Goizean itzulika ibili zen Aiz Orratz-Veleta elkarte txu-txu trenea, eta arratsaldean, pasa den larunbateko mozerro lehiaketa irabazi zuten neska-mutilak joan ziren trenean, goxokiak eta konfetiak botaz, danbor joleen atzetik.



Inauteriak ondo pasa!

**Joseba**  
ileapaindegia

Nafarroa etorb. 12 • Tolosa  
Tel.: 943 65 26 98

[www.villanuevadistribucion.com](http://www.villanuevadistribucion.com)  
**Vi anueva**  
ardoak vinos y distribución

Okobio industrialdea, 47 • BELAUNTA  
Tel./faxa: 943 671 127 • 619 837 405



# Abaltzisketan eta Amezketan gaur, makil hotsak entzungo dira

08:00etan hasita, txantxoek eta talaiek makil dantza eskainiko dute, goiz osoan zehar, baserriz baserri

## Iñigo Terradillos

Gerra garaian galdutako ohitura iri moztu eusten diote Abaltzisketan eta Amezketan, eta batean zein bestean, baserriz baserri ariko dira gaur txantxoak eta talaiek euren dantzaren ordainetan mokadutxo ederrak hartuz.

Abaltzisketan gaur ospatuko dituzte inauteriak. 08:00etan egiten dute hitzordua txantxoek baserrietako ibilbideari ekiteko. Zortzi dantzari, akordeoi jotzailea, saskia daramana eta nagusiak osatu ohi du taldea. Baserrira iritsi aurretik nagusiak adarra jotzen du iristear direla ohartzeko. Erratza pasatzen dute dantza egin behar duten lekuan, eta ondoren makil dantza egiten dute. Amaitutakoan baserrita-

rrek jatekoa eta edatekoa eskaintzen diete indarrak berritzeko. Goizean zehar, elizaren aurrean ere egingo dute dantza, eta ibilbidea amaitzean bazkaltzera joango dira. Txantxoak alkandora eta galtza zuria, gorbata beltza, gerriko gorria eta bi zapi sorbaldan gurutzatuta jantzen dira. Garai batean, baserrietan biltzen zutena ostatuan saldu eta diru horrekin bapo afaldu eta festak antolatzen zituzten.

## Amezketan, gaur eta bihar

Bestalde, Amezketan gaur eta bihar izango dira talai dantzariak. Kasu honetan neska-mutilak osaturiko taldea mahoizko galtzekin, alkandora txuriz, gerriko eta txapela beltzez, abarkekin eta zapi koloretsuz jantzita iristen dira. Abaltzisketan erabili ohi duten doinu berarekin dantzatzeko dute, baina euren kasuan, dantza arinagoa da.

Bai batean zein bestean, inauteriak heldu direla iragartzen duten makil hotsak izaten dira protagonista.



Abaltzisketako txantxoak makil dantza egiten. NL

## ↓ Egitaraua

### ABALTZISKETA

#### ■ Otsailak 19, igandea.

**08:00:** Dantzariak, bi moztorrak eta soinu-jotzailea elkartuko dira, eta Orendain aldean dauden baserriak zeharkatuko dituzte.

**10:30:** Elizaren aurrean Makil Txiki dantza eskainiko dute.

**13:00:** Makilen talaia zabalduko dute Txindokipean; mezatik ateratzen diren guztiei dantza egiten diete, eta ondoren, Larraitz aldeko baserrietara joko dute.

### AMEZKETA

#### ■ Otsailak 19, igandea.

**08:00:** Zazpi-Iturri elkartean inguruan bildu, eta puska biltzen hasiko dira baserriz baserri. Bi talde ariko dira horrela: lehen taldekoek, Sakelatik abiatuta, Ugarten dantzatuko dute, eta Zubillaga auzora joango dira. Bigarren taldekoak, Petxunetik abiatuta, Zubillaga auzora joango dira dantzatzera. Zubillagako bidegurutzean, bi taldeak elkartuko dira eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte. Azken

dantzak Ergonen egingo dituzte.

#### ■ Otsailak 20, astelehena.

**08:00:** Plazan elkartuko dira, eta bi taldetan banatuta, Bendaio eta San Martin aldeko baserrietara joango dira. Lehen taldea Ugartetik Larreta baserriera joango da, eta bigarrena, berriz, Liola aldetik gerturatuko da Larreta baserrira. Bertan elkartuko dira dantzari guztiak, eta elkarrekin, inauterietako azken dantza saioa eskainiko dute.

# Karrozez eta konpartsez beteko dira Tolosako kaleak

11:00etan hasiko dira karrozak eta konpartsak kalera irteten; gaur, txarangak, dantzaldia, zezenak, txistulariak...

## I. Terradillos Tolosa

Dianak esnatuko ditu gaur tolosarrak, eta ohetik altxa, moztorra jantzi eta kalera ateratzeko eskatuko di, inauteriak baitira Tolosan. Gaur da egun handietako bat, Zaldunita. Irudimenaren, kolorearen eta umorearen erakusle bihurtuko dira Tolosako kaleak.

tolosaldea.hitza.info

www.tolosaldea.hitza.info helbidean ikus daitezkeen azken bideoak:

- Haur danborrada.
- Zaldunita Bezperako dantzari txikiak.
- Erraldoi eta buruhandien kalejira.

Hain zuzen ere, 308 karroza eta konpartsa ariko dira kalez kale parodiak eta dantzak egiten. Karrozei dagokienez, 15 izango dira aurtengoan. Horiek bi taldetan banatuta aterako dira, batzuek geltoki zaharretik, eta besteak Gorriti aldetik. 11:00etarako kalean izango dira herritarrei irribarrera ateratzeko helburuarekin ikuskizunak eskainiz.

## Sokamuturra eta txarangak

Goiza osatzeko, txistulari bandak Dianaren ostean kalejira egingo du inauterietako Zortzikoa joz. Hauek txarangei pasako die lekukoa, eta karrozak kalera irtetearekin batera, sokamuturra ere izango da Plaza Berrian.

## Dantzaldia eta zezenak

Arratsaldean ere txistularien eta txarangen doinuak izango dira entzungai. Horrez gain, zezen festa izango da zezen plazan. Iluntzean, Berdura plazara mugituko da festa, bertan dantzaldia izango baita txarangen doinuen erritmoa. Eta gauean ere horiek izango dira giroa alaituko dutenak.



Jendez beteko da San Frantzisko pasealekua, urtero legez. A. MAZ

→ **Laburrak****Udalbatzaren ohiko bilkura, hilaren 23an**

**AMEZKETA** ▶ Udalbatzak ohiko bilkura hilaren 23an, ostegunean, egingo du udaletxean. 20:00etan hasiko den batzarraren, besteak beste, ondorengo gaiak jorratu eta bozkatuko dituzte: Naturgas eta Union Fenosa Gas enpresen likidazioak, eta alkatearen ordainsariak.

**Tren zerbitzuan 48 mila eserleku gehiago**

**TOLOSA** ▶ Renfek Donostiako eta Tolosako inauterietarako zerbitzu osagarriak jarri ditu martxan. Horrela, hilaren 19tik 21era, 48.000 eserleku gehiago egokituko ditu tren zerbitzu bereziei esker. Aldiriko zerbitzuak 07:30ak arte egongo dira, eta gaur 39 tren berezi ibiliko dira.

**Arkeologiari buruzko hitzaldien matrikula**

**TOLOSA** ▶ Kutxak arkeologiari buruzko hitzaldiak antolatu ditu Tolosan, martxoaren 1etik aurrera. Izena emateko [www.kutxasocial.net](http://www.kutxasocial.net) webgunean sartu edo 902 54 00 40 telefonora deitu behar da, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era.

**Barriola-Gonzalezek 22-13 galdu dute Iruñean**

**LEITZA** ▶ Eskuz binakako pilota txapelketaren partida jokatu zuen atzo Abel Barriolak Iruñeko Labriten. Martinez de Irujo gaixo aurkitzen zenez, bere lekua Xebastian Gonzalezek hartu zuen. Aurkariak Xala-Laskurain ziren, eta partida irabaztea lortu zuten, 22-13ko emaitzarekin. Leitzarrak partida bikaina jokatu zuen, bi pilota bakarrik galduz, baina Xala-Laskurain bikotea nagusi izan zen, txapelketa honetan goraka doazela erakutsiz.

# Saioa irabazi arren Leitzata leitzatarrak taldea txapelketatik at gelditu da

**Bardoak 2012 Nafarroako taldekako bertsolari lehiaren jardunaldi berria jokatu da Aurrera elkartearen**

**Asier Imaz** Leitza

Bardoak 2012 Nafarroako taldekako bertsolari txapelketaren lehen fasea Leitzako talde bakoarrak lortu du gainditzea. Leitzata leitzatarrak herenegun txapelketatik at gelditu ziren, nahiz eta Aurrera elkartearen jokatu zen saioa irabazi. Joxema Leitza, Josu Luis Barberia *Zili*, eta Iñigo Sagastibeltza aritu ziren bertsoaren etxeko partetik, eta Jituk taldea or-

dezkaturik, Egoitz Gorosterrazu, Ander Fuentes *Iturri*, eta Maialen Belarra aritu ziren.

Multzoko saio guztiak amaituta, talde guztiak puntu bakarrekin gelditu dira. Puntuazioan, ordea, Barañaingo Beteranoak nagusitu dira. Ondorioz, hauek lortu dute aurrera egiteko txartela.

Jose Luis Barberiaren esanetan, «Aurrerakoa saio polita izan zen. Orduetegi txarra izan arren, 40 aulki jarri genituen, eta denak bete ziren». Ituren, Zubieta eta Doneztebeko bertsolariak osu-tako Jituk, indartsu hasi ziren, agurrean ijitoz jantzita kantatuz. Leitzarrek, ordea, saioari buelta eman eta garaipena lortu zuten, akordeoiaren eta gitarraren la-

guntzarekin, besteak beste, Bob Marleyren *No woman, no cry* abestiaren doinuarekin koplatan eginez.

Negar egiteko arrazoirik ez baldin badute ere, txapelketa eurentzat amaitu da, eta Leitzaren ordezkariak, Leitzatundak taldearen esku gelditu da.

**Manuel Lasarte, gogoan**

Txapelketako saioaren amaieran, une hunkigarria bizitu zuten Aurreraren elkartearen zuzenak. Zundu berri den Manuel Lasarte bertsolari leitzatarrak bere jaioterriari jarritako hamar bertso banatu zituzten ikusleen artean, eta denek batera, bertso horiek abestu zituzten euren omenalditxo eginez.

## Hobariak eta salbuespenak izango dira udalaren hainbat tasatan

Zabor bilketan, uraren kontsumoan eta estolderiagatikotasen gaineko zergetan izango dira beherapenak

**I. Terradillos** Ibarra

Ibarrako Udalak adierazi duenez, hobariak eta kenketak izango dira udalarekin hainbat tasa eta zergetan familia ugariarentzako edota lanbidearteko gutxieneko soldata baino gutxiagoko diru sarrerak dituztenentzako.

2012. urterako indarrean dagoen lanbidearteko gutxieneko soldata (641,40 euro) baino gutxiagoko diru sarrerak egiaztatzen dituzten pertsonak, esaterako, salbuespena daude zabor bilketagatikotasen tasa ordaintzetik, eta uraren kontsumoagatikotasen eta estolderia erabiltzeagatikotasen tasan hobaria izango dute. Famili unitateetatik hartuko dira, etxebizitzaren bidez, eta beren artean nolabaiteko harremana duten pertsonak, eta famili unitatearen kide guztiak Ibarrako erroldan egon behar dira.

Kasu honetan, eskaerarekin batera notatsun agiria, famili unitatearen kide guztiaren diru sarreraren ziurtagiria, 2011eko uraren ordainagiriak eta zabor bilketagatikotasen ordainagiria aurkeztu beharko dira.

Bestalde, familia ugariak 2012 urterako dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko zergan %50eko hobaria izango dute. Kasu honetan, zergaren famili ugariaren titular izan eta baldintza hori justifikatu dezaketen subjektu pasiboak aplikatu zaie hobaria.

Bi kasuetan eskaerak aurkezteko epea irekita dago, martxoaren 7a izango delarik azken eguna. Ibarrako Gizarte Zerbitzuen sailean egin beharko da.

**Irudia** ◯ Ibarra

## XABI FERNANDEZ, ZAZPITIK BOST

Volvo Ocean Race estropadan Xabi Fernandez ontzia bosgarren garaipena lortu du Txinako uretan. Guztira zazpi etapa jokatu dira, eta Telefonicak bost irabazi ditu. Sailkapen nagusian lehen postuan aurkitzen dira, sendo, 114 puntutatik 111

eskuratuta. Laugarren etapa luzea, tartean laburrak jokatzen baitira, bihar hasiko da. Sanyatik (Txina) abiatuko dira, Aucklanderak (Zeelanda Berria) iristeko asmoz. Horretarako, 5220 itsas miliako ibilbidea egin beharko dute. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leizalzeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Garraio publikoa**

**RENFE**

■ **Brinkola-Irun (Tolosako ordutegia):** 11:36, 12:16, 13:16, 13:45, 14:16, 14:55, 15:21, 15:51, 16:36, 17:11, 17:51, 19:31, 20:13, 20:24, 21:01, 21:50, 23:18, 01:00, 03:00 eta 05:00.

Trenak ez dira Apeaderon geldituko.

■ **Irun-Brinkola (Tolosako ordutegia):** 10:43, 11:23, 12:01, 11:24, 14:20, 15:18, 16:53, 17:33, 18:41, 18:43, 19:13, 19:53, 20:33, 21:13, 23:16, 03:10 eta 05:20.

Trenak ez dira Apeaderon geldituko.

**TSST**

■ **23:00etatik 04:00etara orduro.** ASTEASU- Zizurkil-Villabona-Irura-TOLOSA.

■ **23:00etik 04:30era orduro.** TOLOSA-Anoeta- Irura-Villabona-Zizurkil- ASTEASU (Santa Klaratik).

■ **07:00etatik 16:00etara orduro eta horretaz gain, 10:30, 11:30 eta 12:30ean, 16:45etik 20:45era ordu erdiro, azkena 21:45ean. Ez da gaueko zerbitzurik egongo.** DONOSTI-Lasarte-Andoain-Villabona-Irura-TOLOSA.

■ **08:00etatik 16:00etara orduro, eta horretaz gain 11:30, 12:30, 13:30ean, 16:00etatik 20:30era ordu erdiro, azkenak 21:15, 21:45 eta 22:45ean (Lasarte).** TOLOSA-Irura-Villabona- Andoain-Lasarte-DONOSTI.

**TOLOSALDEA BUS**

■ **00:00-02:00-03:30.**

TOLOSA (Zumardi Txiki)-Amarotz-Ikaztegieta-Alegia-Amezketeta-TOLOSA.

■ **01:00-02:45-04:15.**

TOLOSA (Zumardi Txiki)-

Amarotz-Ibarra-Berrobi-El-dua-Elduain-BERASTEGI.

**HIRIBUSA**

■ **10:30, 14:30, 16:00 eta 22:00etan.**

Ibilbidea:

ZUBI BERRIA- Usabal-industrialdea-Amarotz (beheko geltokian)-Kondeko aldapa-ZUBI BERRIA.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. Telefonoa: 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**

**Eider Calahorra Murua.**

Gaur 14 urte. Zorionak eta muxuak familaren partetik.

**Irudia**



**JAIA ETA AZOKA, BATERA**

Azoka eguna zen atzokoa, baina inauteriak ere badira, eta postuetako batzuk San Frantzisko ibiltokian jarri zituzten. Jende ugari bildu zen erostekak egiteko, eta bat baino gehiago mozorrotuta ere ibili zen azokan gora eta behera. Txantxoen eguna, dena den, gaurkoa izango da. San Frantzisko erabat itxuraldatuko da, eta irudimena nagusituko da. Hasi da mozorro festa. R.CALVO

**Agenda**

**INAUTERIAK**

**TOLOSA**

■ **08:00.** Diana egingo dute, Tolosako Musika Bandaren laguntzarekin.

■ **08:45.** Herriko txistulari bandak ohiturazko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du.

■ **10:00.** Txarangaren irteera.

■ **11:00.** Plaza Berrian sokamuturra Alcoyanok alaituta.

■ **11:00.** Karroza eta konpartsen irteera.

■ **15:45.** Udak Txistulari Bandak Idiarena pieza joz egingo du ohiturazko ibilbidea.

■ **16:00.** Kalejira Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalde txarangekin, plaza Zaharretik zezen plazaraino.

■ **16:30.** Zezenak zezen plazan; txarangak eta txistulariak ariko dira ikuskizuna alaitzen. Ondoren kalejira.

■ **19:00.** Dantzaldia Berdura plazan Aiz Orratz, Txapel Haundi eta Sukalde txarangekin.

■ **23:30.** Jones Brothers eta Oriako txarangak ibiliko dira kalez kale.

**AGURRAK**

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...



**Elketa Jatetxea**



**Inauterietako menu berezia**

Etxeko foie terrina fruitu gorriekin

Iberiar urdazazpikoa

Txangurro, aguakatea eta olagarroz

eginiko entsalada epela

Ondoa risottoa

Garaiko barazkiak urdaiazpikoarekin

Zapo, ezkira eta muskuluz beteriko

krepa, marisko saltsarekin

Legatza melatua

Txibiak pelayo erara

Txekor masailak gisatuak

Txuleta zatiak pikiloekin

Etxeko tartak

Brownie-a krema ingelesarekin

Mandarinazko cava sorbeta

Kafea, etxeko kulantza, sagardoa

eta ura bame

Prezioa: **30€**  
(bez-a barne)

- Eguneko menua
- Plater konbinatuak
- Asteburuko menu berezia
- Adosturiko menua

**Enkarguz:**

- Taldekako babarrun jatea
- Txerrikumea • Arkumea

**ERRESERBA EGITEKO:**

San Miguel bailara, 2 • Hernalde •

943 65 21 16

[elketajatetxea@hotmail.com](mailto:elketajatetxea@hotmail.com)